

UPV/EHU, moztu kolaborazioa militarismoarekin

Horizonte Elcano ekimenean Armadaren alboan UPV/EHUren parte-hartzearen harira UPV/EHUko langile talde batek [eskutitz hau](#) prestatu du eta atxikimenduak jasotzen ari da UPV/EHUko langileen artean, ekainaren amaieran eskutitza eta atxikimendu zerrenda publiko egiteko. Eskaerari atxikimendua emateko moztukolaborazioa@gmail.com helbidera idatzi behar da, izen-abizenak, kolektiboa (IRI / AZP) eta zentroa seinalatuz.

LAB, Steilas eta ELA sindikatuen UPV/EHUko sekzio sindikaletatik sostengua eman nahi diogu eskaera honi eta animatu nahi dugu UPV/EHUko langileak eskaera honi atxikimendua ematera.